



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# ONARPEN PROZESUAREN ARAUDIA 2026-2027 IKASTURTEA

2024AN, 2025EAN ETA 2026AN JAIOTAKO  
HAURRENTZAT



## UDAL HAUR ESKOLAK



Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora





## AURKIBIDEA

<b>1. Udal Haur Eskoletan sartzeko erak</b>	<b>2</b>
1.1. Eskolako plaza berritzeko eskabideak	2
1.2. Udalaren Gizarte Zerbitzuek proposatutako onarpen eskabideak	3
1.3. Onarpen eskabide berriak	4
<b>2. Derrigorrezko dokumentazioa</b>	<b>7</b>
<b>3. Baremoa eta justifikazio dokumentazioa</b>	<b>9</b>
<b>4. Onartzeko ohiko epea</b>	<b>21</b>
4.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea	21
4.2. Eskatzaileen zerrenda	22
4.3. Derrigorrezkoa den dokumentazioa zuzentzeko epea	23
4.4. Behin-behineko zerrendak (haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskabideak eta baremazioaren behin-behineko zerrenda)	23
4.5. Erreklamazio epea	24
4.6. Behin betiko zerrendak (haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskabideak eta baremazioaren behin betiko zerrenda)	24
<b>5. Onarpena ikasturtean zehar</b>	<b>26</b>
5.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea	26
5.2. Epeak ikasturtean zehar	27
5.3. Itxaron zerrenda	28
<b>6. 2026-2027 ikasturteko tarifak</b>	<b>30</b>
6.1. Zerbitzuaren prezioa	30
6.2. Arau aplikagarriak	31





## 1. Udal Haur Eskoletan sartzeko erak.

Eskabideak hurrengoak izan daitezke:

- Eskolako plaza berritzeko eskabideak (aurreko ikasturteko haurrak).
- Udalaren Gizarte Zerbitzuek proposatutako onarpen eskaerak.
- Sarrera berriko onarpen eskaerak:
  - ohiko epearen barruan aurkeztutakoak.
  - ohiko epea bukatu ondoren aurkeztutakoak, ikasturtean zehar.

### 1.1. Eskolako plaza berritzeko eskabideak.

2024an eta 2025ean jaiotako haurrek eskolatuta dauden eskoletan eska dezakete berriro plaza, edo Udalaren sareko beste edozein eskolatara aldatzeko ere eska dezakete. Horretarako, **2025-2026 ikasturteko kuoten ordainketan egunean egon beharko dute.**

**Berritzeko eskabideak aurkezteko epea:** 2026ko martxoaren 24tik 27ra (biak barne).

Ez bada zehaztutako epean berritzen, galdu egingo da eskolako plaza. Hala ere, berritzeko epea igaro ondoren, 2026-2027 ikasturterako plaza bat eskatu nahi bada, inskripzio berriak egiteko prozesuaren barruan egin ahal izango da, edo prozesu hori amaitu ondoren eta ikasturtean zehar, sartzeko baldintzei eta baremoari jarraituz, edonola ere.

**Berritzatzeko eskabideak aurkezteko lekua:** eskabide orria haurra 2025-2026 ikasturtean eskolatuta dagoen eskolan aurkeztuko da.

Jantoki zerbitzua: eskainitako jantoki plazen kopurua eskola plazen kopurua baino txikiagoa da. Hori dela eta, jantoki plazen esleipena, oro har, lan arrazoiengatik beharrezana justifikatzen dutenentzat izango da, behar bezala egiaztatuta, bai lehenik zerbitzu hori zutenentzat, baita lehen aldiz eskatzen dutenentzat. Bi gurasoko familien kasuan, bai ama bai aita edo legezko tutore biak (edo guraso bakarreko familien kasuan, ama edo aita edo legezko tutorea) lan merkatuan lanean daudela egiaztatu beharko da.





Familiak Gizarte Segurantzaren lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> edo Gizarte Segurantzaren egungo lan egoeraren ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztu beharko du berritzeko eskaerarekin batera. Gizarte Segurantzaren afiliatuta ez dauden pertsonen kasuan, lan egoera aktiboan daudela justifikatzen duen ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup>.

Baldintza betetzen duten eskabide kopurua eskaintako plaza kopurua baino handiagoa bada, haurrak eskolatzearen hasieran lortutako baremoko puntuazio ordenaren arabera esleitu dira plazak.

Eskola aldaketa: Udalaren sareko beste eskola batera aldatzeko eskaera egiten bada, aldatu nahi den eskolan plaza egotearen menpe egongo da onartzea. Eskolaz aldatzeko eskaerak eskuragarri dauden plazak baino gehiago badira, eskolatze hasieran lortutako baremoa aplikatuz esleitu dira.

## 1.2. Udalaren Gizarte Zerbitzuek proposatutako onarpen eskabideak.

Zailtasun sozialeko egoeran, zaugarritasun sozio-ekonomikoan edota babesgabetasun arriskuan edo egoeran dauden 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hezteko eta horiei arreta eskaintzeko, 2017ko irailaren 11n onartu eta 2026ko martxoaren 12an eguneratutako Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza Zerbitzuaren arteko Lankidetzaren eta Koordinazio Protokoloan ezarritakoaren arabera, hogeita leku gordeko dira ikasturte bakoitzean Gizarte Zerbitzuen arreta jasotzen duten eta babesgabetasun egoeran dauden familientzat. Gizarte Zerbitzuek euren ustez eskolatzea komeni diren haurren gaineko proposamen arrazoitua igorriko dute 2026ko apirilaren 14an eta Hezkuntza Zerbitzuak aztertuko du proposamen hori.

**Familiak eskaera eta dokumentazioa aurkezteko epea:** 2026ko apirilaren 21etik 23ra (biak barne), plaza esleitu den eskolan.

Ezarritako epea amaitzen denean, bukatutzat emango da plazak erreserbatzeko prozedura hori.

Eskaera eta dokumentazioa epe horren barruan aurkeztu ez dituzten familiek eskola plaza izateko eskubidea galdu egingo dute. Bete ez diren plazak Udal Haur Eskolen eskaintza orokorrera igaroko dira.





### 1.3. Onarpen eskabide berriak.

1.3.1. Familiek ohiko epean nahiz ikasturtean zehar aurkeztu ahal izango dituzte izena emateko eskabideak.

**- Eskolatzea 2026ko iraileko lehen eskola egunean hasteko, ohiko epean aurkeztutako eskaerak.**

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 13tik maiatzaren 4ra izango da, biak barne, 2024, 2025 eta 2026an jaiotako haurrentzat. 2026ko maiatzaren 1etik 10era (biak barne) jaiotako haurrentzat, epea irekita egongo da 2026ko maiatzaren 20ra arte, egun hori barne.

**- Ikasturtean zehar aurkeztutako eskabideak, eskolatzea eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehen eskola egunean hasteko.** Leku huts bat eskatzeko epea hilabete bakoitzeko 1etik 8ra bitartean egongo da irekita, irailetik aurrera.

1.3.2. Eskolan hasi ahal izateko, 17 aste beteta izan beharko dituzte haurrek, gutxienez, eta aldi berbera izango da, oro har, adopzio kasuetan ere.

1.3.3. Azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuan zehazten den bezala, urte naturaleko azken lauhilekoan jaio diren eta muturreko goiztiartasun edo goiztiartasun handiko baldintzak dituzten haurrak adinagatik dagokiena baino beheragoko maila batean sar daitezke, Haur Hezkuntzako edozein mailatan lehen aldiz sartzen direnean bakarrik.

Oro har, eskolatzeko azken hilabetea 2027ko maiatza izango da. Maiatzean eskolatuko diren ikasleek plaza berritzeko aukera izango dute 2027-2028 ikasturterako.

#### **Ez da eskaerarik onartuko:**

- Eskolan hasteko datan, urte batetik beherako haurrentzat, baldin eta haien amak, aitak edo legezko tutoreak jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedenaldea baliatzen ari badira, eta eskolatzeko hasierako egunean 5 aste baino gehiago geratzen bazaizkie hartzeko (guraso bakarreko familien kasuan, ama, aita edo legezko tutore bakarrari; eta, bi gurasoko familiaren kasuan, bi gurasoen edo legezko tutoreen artean).





- Gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea badute jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedena hartzeko, bakoitzaren 17 asteko atsedena justifikatu beharko da (bi gurasoko familien kasuan) edo 28 asteko atsedena (guraso bakarreko familien kasuan) edo 18 asteko atsedena erditze anitzeko kasuetan.
- Gurasoek edo legezko tutoreek ez badute eskubiderik jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedena hartzeko, justifikatu beharko dute.

#### **Salbuespen gisa, eskabidea onartuko da:**

- Jaiotzagatik eta adingabea zaintzagatik dagokion lan atsedena lanaldi partzialean hartzen den kasuetan, betiere 17 asteak justifikatzen badira (28 asteak guraso bakarreko familien kasuan eta 18 asteak erditze anitzeko kasuetan).
- Jaiotzagatik edo adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedena baliatzen egon arren, amak, aitak edo legezko tutoreak gaixotasun larria edo ezintasuna badu, eta, horren ondorioz, ezin badu semea edo alaba zaindu. Egoera horiek egiaztatu beharko dira.

#### **Eskabideak aurkezteko tokia:**

- Online: Vitoria-Gasteizko Udalaren web orriaren bidez (izena emateko azken egunaren 23:59ra arte).
- Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan (aurretiko hitzorduarekin) eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan (aurretiko hitzorduarekin edo hitzordurik gabe).
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten haurren eskabideak: familiei argibideak eta orientabideak eskaintzeko, eskabideak Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztuko dira lehenespenez (Frai Zacarías Martínez kalea, 3), 08:30etik 14:00etara bitarteko ordutegian. Aurretiko hitzordua eskatu beharko da horretarako 945 16 12 30 telefono zenbakiaren bidez.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Osasun laguntza beharrean diren haurren eskaerak onartzea: Hezkuntza Zerbitzuak erabakiko du osasun laguntzaren premian diren ikasleak onartu ahal diren, horretarako beharko diren giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta.

<sup>1</sup> Dokumentazioa eguneratutzat joko da, baldin eta agiria sortu den egunetik aurkeztu den egunera arte hiru hilabete baino gehiago igaro ez badira.



**Vitoria-Gasteiz**  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora





## 2. Derrigorrezko dokumentazioa.

**Eskaera izapidetzeko onar dadin, nahitaezkoa da, eskaera orriarekin batera (eredu ofizialaren arabera izango da), behar bezala **beteta eta sinatuta**, honako dokumentazio hau aurkeztea:**

### a. Familiari dagokion dokumentazioa:

- **NAN** edo **AIT** atzerritarren kasuan (AIT ez dutenek pasaportearen aurkeztu ahalko dute). Dokumentua bi aldeetatik aurkeztea ezinbestekoa da.
- **Horretaz gain**, familiak dokumentu bakarria aurkeztuko du bere egoeraren arabera:
  - o **Haurraren Erregistro Zibilean inskribatu izanaren** agiria, **familia liburua**, edo antzeko dokumentua.
  - o **Legezko tutorearen edo tutoreen kasuan**, hori egiaztatzen duen epaiaren edo ziurtagiri ofizialaren fotokopia.
  - o **Haurra familia harreraren badago**, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.
  - o **Adopzio prozesuan dauden haurren kasuan**, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala. Familia liburua plaza lortu ondoren aurkeztuko da, eskabidea egiteko epean aurkeztu beharrean. Edonola ere, familiaren erantzukizuna izango da adopzioaren izapideak formalizatutakoan hori jakinarazi eta familia liburua aurkeztea.

Halaber:

- Banandutako edo dibortziatutako gurasoen kasuan, guraso bati zaintza ematen dion erabaki judizial irmoa, epaileak berretsitako hitzarmen arautzailearen kopia edo behin-behineko neurrien autoa.
- Muturreko goiztiartasun edo goiztiartasun handiagatik beheragoko maila batean onartzeko eskabidearen kasuan, egoera hori ziurtatzen duen mediku txostena.





**b. Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedendia hartu izana justifikatzeko dokumentazioa (Eskolan hasteko datan, urte batetik beherako haurren familientzat SOILIK):**

- **Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioari buruzko Gizarte Segurantzaren ebazpena.** Justifikatu egin beharko dira guraso edo legezko tutore bakoitzeko baimeneko 17 asteak (edo ama, aita edo legezko tutorearen 28 asteak, guraso bakarreko familien kasuan, eta 18 asteak, erditze anitzeko kasuetan).

Gizarte Segurantzaren ebazpenean baimen aste guztiak agertzen ez badira, gainerako asteak jasotzen dituen **enpresa ziurtagiri eguneratua**<sup>1</sup> ere aurkeztu beharko da.

Gaixotasun larria edo haurra zaintzeko ezintasuna duten gurasoen kasuan, egoera hori justifikatzen duen **mediku ziurtagiria** aurkeztu beharko da.

- Prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez diren kasuetan, **Gizarte Segurantzaren ziurtagiria** aurkeztu beharko da, non aipatutako prestazioa ez dagokiola edo jaso ez dela zehazten den baldintzak ez betetzeagatik, edo egoera hau ziurtatzen duen **Gizarte Segurantzaren lan bizi** **eguneratua**<sup>1</sup> aurkeztuko da.

<sup>1</sup> Dokumentazioa eguneratutzat joko da, baldin eta agiria sortu den egunetik aurkeztu den egunera arte hiru hilabete baino gehiago igaro ez badira.





### 3. Baremoa eta justifikazio dokumentazioa.

Eskabideen baremazioak irizpide hauei jarraituko die:

a) **Eskatu den eskolan eskolatutako anai-arrebak izatea:**

Anai-arreba bat edo gehiago eskabidean adierazitako eskolan matrikulatuta daude 2025-2026 ikasturtean, eta eskola horretan jarraitzeko berritu egin dute plaza 2026-2027 ikasturterako.	9 puntos
Atal honetako gehieneko puntuazioa.....	9 puntos

**Justifikatzeko dokumentazioa:**

Atalari dagokion puntuazioa emateko, beharrezkoa izango da egoera hori 2025-2026 ikasturtean gertatzea eta 2026-2027 ikasturtean mantentzea.

- Familiak eskabide orrian adierazi beharko du.
- Etxebizitza berean bizitzea ezinbesteko baldintza da. Vitoria-Gasteizen erroldatutako familien kasuan, eskaera orrian adierazi bada, Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du haien erroldatzea. Vitoria-Gasteiztik kanpoko bizilekuetarako, familiek errolda ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztu beharko dute.
- Anai-arrebatzat hartuko dira, halaber, familia unitate berean legez eraturako tutoretzan edo familia harrera iraunkorrean edo adopzio aurreko familia harreraren dauden adingabeak. Horretarako, dagokion erakundeak emandako frogagiria edo ziurtagiria aurkeztuko da.
- Halaber, atal honetan ematen den puntuazio zenbatzeko garaian, haurraren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitzat edo amatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anai-arrebatzat hartuko dira haurrarekin batera bizi badira. Egoera hori ofizioz egiaztatuko da Vitoria-Gasteizko Udal Erroldan, edo dagokion errolda ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztuz, beste udalerrri batekoa bada.





- Zaintza duen amaren, aitaren edo legezko tutorearen bikotekidea dela ziurtatzeko, pertsona horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu beharko da, eta biak elkarrekin ezkondua daudela egiaztatzen duen familia liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

**b) Helbidea edo lantokia** (Kontzeptu ez metagarriak):

Gurasoetako edo legezko tutoretako batek edo biek eskatu den eskolan egiten dute lan.	7 puntu
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta dago eta haren helbidea bat dator, gutxienez, gurasoetako edo legezko tutoretako batekin.	5 puntu
Haurra haur eskola publikorik ez duen udalerrri batean erroldatuta dago eta haur eskola publikoa duen udalerririk hurbilena Vitoria-Gasteiz da.	5 puntu
Haurra ez dago erroldatuta Vitoria-Gasteizen, baina gurasoetako edo legezko tutoretako batek edo biek Vitoria-Gasteizko udalerrian egiten dute lan.	3 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	7 puntu

**Justifikatzeko dokumentazioa:**

- Eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen unean amak, aitak edo legezko tutoreak eskatutako eskola horretan lan egiten badu, kontuan hartuko da. Familiak eskabidean adieraziko du inguruabar hori, eta ez da agiririk aurkeztu behar, ofizioz egiaztatuko baita.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea ofizioz egiaztatuko da. Familiaren helbidetzat hartuko da haurra gurasoetako batekin edo legezko tutoretako batekin, gutxienez, bizi den tokia.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurren kasuan, haur eskola publikorik ez duen udalerrri batean erroldatuta badaude eta zerbitzu hori daukan udalerrri hurbilena Vitoria-Gasteiz bada, errolda ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztu beharko da.





- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurren kasuan, euren gurasoa/k edo legezko tutorea/k besteren kontura arituz udalerrri honetan lan egiten badute, lan egiten duten enpresako titularrak edo langileen arduradunak egindako egiaztagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztuko da, eta inguruabar hori gertatzen dela adieraziko da bertan.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurren kasuan, euren gurasoa/k edo legezko tutorea/k norberaren kontura arituz udalerrri horretan lan egiten dutenean, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan altan dagoela egiaztatzen duen ziurtagiriaren bidez justifikatuko da tokia. Indarreko araudiari jarraituz, ez baldin badago Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egoteko legezko betebeharririk, Vitoria-Gasteizko Udalak ematen duen irekitze baimenaren fotokopia konpulsatua eta lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztuko dira.
- Ama edo aita dela egiaztatzeko, Erregistro Zibileko inskripzioaren, familia liburuaren edo antzeko dokumentuaren kopia aurkeztuko da. Haurraren legezko tutorea dela egiaztatzeko, dagokion epai edo ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.
- Lantokia eta haurreskola udalerrri berean egoteagatik ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian, haurraren zaintza guraso bakar baten gain baldin badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitatzat edo amatzat hartuko da. Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu beharko da, eta biak elkarrekin ezkondua daudela egiaztatzen duen familia liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu beharko da.

**c) Gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera** (behin betiko ezintasun iraunkor absolutuaren egoera lan egoera aktiboarekin parekatzen da):

Bi guraso dituzten familien kasuan, guraso edo legezko tutore biek lan egiten dute.	5 puntu
Ama bakarreko edo aita bakarreko familien kasuan, amak, aitak edo legezko tutoreak lan egiten du.	5 puntu
Bi guraso dituzten familien kasuan, gurasoetako batek edo legezko tutoreetako batek lan merkatuan lan egiten duenean, eta bestea enplegu	





bilaketa aktiboan dagoenean edo ikasketa ofizialak egiten ari denean.	2 puntu
Bi guraso dituzten familien kasuan, guraso edo legezko tutore biak enplegu bilaketa aktiboan daudenean edo ikasketa ofizialak egiten ari direnean.	2 puntu
Guraso bakarreko familien kasuan, gurasoa edo legezko tutorea enplegu bilaketa aktiboan dagoenean edo ikasketa ofizialak egiten ari denean.	2 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa.....	5 puntu

**Justifikatzeko dokumentazioa:**

**- Lan egoera aktiboa egiaztatzeko:**

- Gurasoak edo legezko tutoreak Gizarte Segurantzaren alta emanda badaude: ibilbide irekia duen Gizarte Segurantzaren LAN BIZITZAREN ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup>.
- Gurasoak edo legezko tutoreak Gizarte Segurantzaren alta emanda ez badaude: beste erregimen edo mutua batean alta emanda daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup>.

**- Enplegu bilaketa aktiboa egiaztatzeko:**

LANBIDEren LEABD ziurtagiria aurkeztu beharko da eta, izena emateko orrian, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu bilaketa aktiboari buruzko datuak ofizioz kontsultatzeko baimena eman.

LANBIDEk berretsiko du, bere irizpideen arabera, lana aktiboki bilatzeko egoera.

**- Ikasketa ofizialak egiaztatzeko:**

Matrikularen egiaztatzea aurkeztuko da. Ikasketa ofizial edo prestakuntza araututzat jotzen da Hezkuntza Ministerioak araututakoa, baimendutako ikastetxeetan ematen dena, ezarritako ikasketa plan bati jarraitzen diona eta titulu ofizialak ematen dituena.





\* **Honako egoera hauek lan egoera aktibotzat hartuko dira, eta, beraz, dagozkien puntuak lortuko dituzte:**

- **Ezintasun Iragankorreko egoeran** egotea.
- **Adingabeak zaintzeko eszedentzian** egotea, baldin eta lanpostuan hasteko data ez bada hilabete baino luzeagoa haurra eskolan hasi denetik. Ezinbestekoa izango da lanpostura itzultzeko data egiaztatzea enpresa ziurtagiri baten bidez, ibilbide irekia duen lan bizitzaren ziurtagiri eguneratuarekin<sup>1</sup> batera.
- **Aldi baterako etete egoera berezia** adingabeak zaintzeko eszedentziarekin parekatuko da. Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratuaren<sup>1</sup> bidez egiaztatuko da.
- **Behin betiko ezintasun iraunkor absolutuaren egoera.** Gizarte Segurantzaren dagokion ebazpenaren bidez egiaztatuko da.

Guraso bakarreko familien kasurako, kontuan hartuko dira araudi honen g) “ Familia ugaria edo guraso bakarreko familia” puntuan zehaztutakoak.

**d) Familia unitatearen 2024. urteko errenta (Zerga oinarri orokorrak + Aurrezkiaren zerga oinarriak):**

Batura 15.876,00 € edo gutxiagokoa bada	2 puntu
Batura 47.628,00 € edo gutxiagokoa bada	1,5 puntu
Batura 79.380,00 € edo gutxiagokoa bada	1 puntu
Aurreko kasuetan, eskatzailea ez den beste seme-alaba adingabe bakoitzeko 0,25 puntu gehituko dira.	
Atal honetako gehieneko puntuazioa.....	4 puntu

**Justifikatzeko dokumentazioa:**

Adierazitako puntuazioa lortzeko eskubidea izateko, familia unitatea eratzen duten kide guztien 2024ko zerga ekitaldiari dagozkion diru sarrerak hartuko dira kontuan.





- Familiek Araban aurkezten badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena, beren datu fiskalei buruzko informazioa kontsultatzeko baimena eman ahal izango diote Hezkuntza Zerbitzuari honek ofizioz eska dezan. Horretarako, eskabide orrian baimendu beharko dute. Aitorpen horretan, 16 urtetik gorako familia unitateko pertsona baten datuak jasotzen badira, pertsona horrek ere baimena eman beharko du beste orri batean. Bestela, zerga horren aitortpena egiteko betebeharra duten familia unitateko pertsona guztien 2024. urteko aitortpenaren kopia aurkeztuko da.
- Beste foru lurralde bateko edo Estatuko Zerga Agentziako zergadunak badira, edo Espainiako Estatutik kanpo ordaindu bazituzten zergak, Hezkuntza Zerbitzuak ezingo ditu pertsona horien datu fiskalak kontsultatu. Horregatik, zerga horren aitortpena egiteko betebeharra duten familia unitateko pertsona guztien 2024. urteko errentaren gaineko aitortpenaren kopia aurkeztuko da.
- Errenta aitortpenik egin ez bada, foru ogasunen batek edo Estatuko Zerga Agentziak –kasuan kasu– emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, aurkeztu ez izana bermatzen duena edota familia unitateko guztiek 2024. urtean eskuratutako diru sarrerak justifikatzeko balio duten honako agiri ofizial hauen kopiak, dagokionaren arabera:
  - Etekin garbien ziurtagiria, Foru Ogasunak edo Estatuko Zerga Agentziak emana.
  - 10 T agiria.
  - Pentsioaren ziurtagiria.
  - Langabeziaren ziurtagiria, Lanbidek emandakoa, jaso izan diren prestazioak jasotzen dituen.
  - BEZaren urteko aitortpena.
  - Familiaren 2024. urteko egoera ekonomikoa egiaztatzen duen beste edozein agiri.
- Familia unitateko kideren batek ez badu PFEZaren aitortpena egin, Espainiako Estatutik kanpo egonez gero, dagokion ogasunak edo jatorrizko herrialdeko administrazio eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko du, 2024an jasotako errenta guztiak eta PFEZari egotz dakizkiokeen adierazten dituen.
- Gizarte laguntzak jasotzen dituzten pertsonen kasuan, laguntza horiek jasotzen dituztela edota ez dutela diru sarrerarik egiaztatzen duten Udalaren Gizarte Zerbitzuen edo Hirugarren Sektorereko beste Erakunde batzuen ziurtagiria aurkeztu ahalko da.





### Familia unitatea

32/2015 Dekretuaren (martxoaren 17koa, familia politiken eremuan familia errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen dekretua aldatzeko) 4. artikularen arabera, honako osagai hauek dituen hartzen da familia unitatetzat:

- a) Eskatzailea.
- b) Haren ezkontidea, ezkontza deuseztasunik, banatzerik edo dibortziorik izan ez bada, edo harekin izatezko bikote gisa bizi ohi dena, betiere eskatzailea emakumeen kontrako indarkeriaren biktima ez bada eta egoera hori dekretuaren hirugarren paragrafoan ezarritako moduan egiaztatu badu.
- c) Haiek zaintza eta jagoletzapean dituzten eta etxebizitza berean bizi diren seme-alabak.

Gurasoak edo legezko tutoreak etxebizitza berean erroldatuta ez badaude eta haien artean ezkontza loturarik ez badago, bikote gisa bizi ohi direla uste izango da, non eta ebazpen judizialaren bidez egiaztatzen ez duten elkarrekin bizi ez direla. Ebazpen horretan bertan emango da semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza erregimenari buruzko erabakia.

Haurraren zaintza Administrazioaren tutoretzapean balego, puntuazio handiena emango zaio errenta egoerari.

Eskabidean anai-arreba adingabeen kopurua ere zehaztuko da. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu horien erroldatze datuak. Vitoria-Gasteiztik kanpo bizi diren kasuetan, familiek errolda ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztu beharko dute.

### e) **Desgaitasuna:**

Matrikulatu nahi den haurrak %33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatik.	3 puntu
Gurasoetako edo legezko tutoretako batek zein biek nahiz anai-arrebaren batek %33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatik.	2 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	3 puntu





### Justifikatzeko dokumentazioa:

Dagokion lurralde historikoko foru aldundian edo estatuko antzeko erakunde eskudunean gizarte politiken arloan eskumenak dituen sailak emandako ziurtagiria aurkeztuko da. Bertan legez onartuko da eragindako pertsonak %33ko desgaitasuna edo handiagoa duela.

Kontzeptu horregatik puntuazioa jasotzeko eskubidea duten bi pertsona edo gehiago badira desgaitasuna dutenak, baten puntuazioa bakarrik hartuko da kontuan.

Haurraren neba-arreba dela ofizioz egiaztatuko da Vitoria-Gasteizko Udal Erroldan, edo dagokion errolda ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztuz, beste udalerrri batekoa bada. Ama edo aita izatea, Erregistro Zibileko inskripzio ziurtagiriaren, familia liburuaren edo antzekoaren bidez. Haurraren legezko tutorea dela egiaztatzeko, epaiaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

Neba-arrebatzat hartuko dira, halaber, familia unitate berean legezko tutoretza egoeran edo behin betiko nahiz adopzio aurreko familia harreran dauden adingabeak.

Era berean, inskribatu beharreko haurraren zaintza gurasoetako batek bakarrik badu, zaintza duen gurasoaren legezko bikotekidea ere haurraren amatzat edo aitatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anai-arrebatzat hartuko dira haurrarekin bizi badira. Egoera hori ofizioz egiaztatuko da Vitoria-Gasteizko Udal Erroldan, edo dagokion errolda ziurtagiri eguneratua<sup>1</sup> aurkeztuz, beste udalerrri batekoa bada.

Haurraren zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela egiaztatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu beharko da, bai eta beste pertsonarekin ezkondu dagoela egiaztatzen duen familia liburuaren kopia edo izatezko bikotea direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere.

### f) Genero indarkeriaren biktima:

Haurra, haren ama edo legezko tutorea genero indarkeriaren biktima da.	2 puntu
--	---------





### Justifikatzeko dokumentazioa:

Egoera hori egiaztatuko da Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan jasotako moduetako baten bidez, hots, lege honetan aurreikusitako emakumeen aurkako edozein indarkeria adierazpenengatiko kondena epaia: babes agindua edo biktimen aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial, edo Fiskaltzaren txostena, eskatzailea genero indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duena. Gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero indarkeriaren biktimenzako administrazio publiko eskudunaren harrera zerbitzuen txostenaren bidez ere egiaztatu ahal izango da, edo beste edozein tituluren bidez, betiere eskubide eta baliabide bakoitzerako irispidea arautzen duten arau xedapen sektorialetan halakorik aurreikusita badago.

### g) Familia ugaria edo guraso bakarreko familia:

Kategoria bereziko familia ugarikoa izateagatik.	1,5 puntu
Kategoria orokorreko familia ugarikoa izateagatik.	puntu 1
2 seme-alaba edo gehiago dituen guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	1,5 puntu
Seme edo alaba bakarra duen guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	puntu 1
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	1,5 puntu

### Justifikatzeko dokumentazioa:

- **Familia ugariaren izaera** familia ugariaren titulu ofizialaren edo txartelaren fotokopia eguneratuaren bidez egiaztatuko da.
- **Guraso bakarreko familiatzat edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiatzat** hartzen dira Guraso bakarreko familien araubidea ezartzen duen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuaren 3. artikuluen 1 et 2 puntuetan zehaztutakoak.

Hori horrela, guraso bakarreko familia edo gurasobakartasun egoeran dagoen familia ziurtatzeko "Guraso bakarreko familiaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren ziurtagiria"ren kopia





aurkeztu beharko da edota, hau eduki ezean, hau lortzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa; alegia, "Guraso bakarreko edo guraso bakarreko egoeran dagoen familia izaera aitortzeko eskabidea" orrian zehaztutakoak.

**h) Terrorismoaren biktima:**

Haurra, haren ama, aita edo legezko tutorea terrorismoaren biktima da.	puntu 1
--	---------

**Justifikatzeko dokumentazioa:**

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan den Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren edo Estatuko Administrazioiko edo beste autonomia erkidego bateko erakunde eskudunaren ebazpenaren bidez egiaztatuko da izaera hori.

**i) Familia harrera:**

Haurra harrera familia batean bizi da.	puntu 1
--	---------

**Justifikatzeko dokumentazioa:**

Dagokion foru aldundian gizarte politikoen eskumena duen sailak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da izaera hori.

**Berdinketa hausteko irizpideak:**

Berdinketa ematen bada, aurreko irizpideen arabera lortutako puntuazio handienari erreparatuko zaio. Irizpideak banan-banan eta jarraian adierazten den hurrenkeran alderatuko da.

1. a) "Eskolan matrikulatutako anai-arrebak" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
2. b) "Helbidea edo lantokia" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
3. e) "Desgaitasuna" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
4. i) "Familia harrera" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
5. f) "Genero indarkeriaren biktima" atalean lortutako puntuaziorik handiena.





6. h) "Terrorismo indarkeriaren biktima" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
7. g) "Familia ugaria edo guraso bakarreko familia" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
8. c) "Gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera" atalean lortutako puntuaziorik handiena.
9. d) "Familia unitatearen 2024. urteko errenta" atalean lortutako puntuaziorik handiena.

Horren ondoren ere berdinketak jarraitzen badu, ordena alfabetikoaren arabera erabakiko da, Eusko Jaurlaritzak urteko modu aleatorioan xede horretarako erabakitzen duen letratik hasita. 2026-2027 ikasturterako "R" letra izango da.

#### **Baremazioan alderdi hauek hartuko dira kontuan:**

- Baremazioarako edo puntuak lortzeko, dokumentazioa eskabideak aurkezteko epean aurkezten bada bakarrik hartuko da kontuan.
- Nahitazko dokumentazioa zuzentzeko epean, baremazioarako agiri berririk ez da onartuko.
- Aurreko baremoa erabiliz, eskabide bakoitzari ematen zaion puntuazioak 2026-2027 ikasturte osorako balioko du. Eskabideak puntuazioaren araberrako hurrenkeran antolatuko dira, adinetan sailkatuta. Plazak, eskabide bakoitzak zerrenda bakarrean duen hurrenkeraren, eta adinaren eta eskatutako eskolaren arabera esleituiko dira.
- Jantokiko plaza esleitzeko ere balioko du puntuazio horrek (8:00etatik 16:00etarako ordutegian), baldin eta baldintzak betetzen dituzten familien eskaera gehiago badaude (bi gurasoak edo legezko tutoreak –edo ama, aita edo legezko tutorea, guraso bakarreko familien kasuan- lan merkatuan lanean aritzea) jantokiko plazak baino.

**Aurreko atal bakoitzeko dokumentazio egiaztagiririk aurkeztuko ez balitz, zero puntu emango dira onarpen baremoaren dagokion laukian.**

**Ezin bestekoa izango da izen emate orriarekin batera aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa zein baremazioarako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko batean idatzita egotea edo itzulpen ofiziala aurkeztea.**





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**Hezkuntza Zerbitzuak eskabidean adierazitako datuak edo erantsitako agiriak ez datozela bat edo horien artean kontraesanaren bat dagoela hautematen badu, penalizazioa aplikatu ahal izango du pertsona horrek lortutako puntu kopuruan, eta, plaza esleitu bazaio, hori kendu ahalko zaio, interesdunari aurretik dagokion entzunaldia eskaini ondoren.**

<sup>1</sup> Dokumentazioa eguneratuztat joko da, baldin eta agiria sortu den egunetik aurkeztu den egunera arte hiru hilabete baino gehiago igaro ez badira.



**Vitoria-Gasteiz**  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora





## 4. Onartzeko ohiko epea.

Eskolatzea 2026ko irailean hasteko, hauek izango dira onartzeko ohiko prozesuaren epeak:

1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.	2026ko apirilaren 13tik maiatzaren 4ra (eta maiatzaren 20ra arte, 2026ko maiatzaren 1etik 10era, biak barne, jaiotako haurrentzat).
2. Eskatzaileen zerrenda.	2026ko maiatzaren 22an.
3. Derrigorrezkoa den dokumentazioa zuzentzeko epea.	2026ko maiatzaren 25etik ekainaren 5era, biak barne.
4. Behin-behineko zerrendak (haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskabideak eta baremazioaren behin-behineko zerrenda)	2026ko ekainaren 17an.
5. Erreklamazioak egiteko epea.	2026ko ekainaren 17tik 19ra, biak barne.
6. Behin betiko zerrendak (haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskabideak eta baremazioaren behin betiko zerrenda)	2026ko ekainaren 26an.

### 4.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

#### Aurkezteko tokia:

2026ko apirilaren 13tik maiatzaren 4ra, biak barne (eta 2026ko maiatzaren 20ra arte, 2026ko maiatzaren 1etik 10era bitartean jaiotako haurrentzat, biak barne), onarpen eskabideak eta agiriak aurkeztu ahal izango dira:

- Online (izena emateko azken egunaren 23:59ra arte).
- Aurrez aurre, hemen:





- Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoak (aurretiko hitzorduarekin) eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoa (aurretiko hitzorduarekin edo hitzordurik gabe).
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, eskabideak eta dokumentazioa Hezkuntza Zerbitzuaren bulegoetan (Frai Zacarias Martinez kalea, 3) aurkeztuko dira lehenespenez eta aurrez aurre. Aurretiko hitzordua eskatu beharko da horretarako, zeina 945 16 12 30 telefono zenbakiaren bidez.

#### **Kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsuak:**

- Eskabide bakarra aurkeztuko da haur bakoitzeko.
- Behar bezala sinatuta dauden eta derrigorrezko dokumentazioa erantsita duten eskabideak bakarrik onartuko dira izapidetzeko (ikus 2. puntua).
- Online izapidetzeko, eskabidea Vitoria-Gasteizko Udalak bere egoitza elektronikoan horretarako gaituta duen gunean beteko da.
- Aurrez aurreko izen ematea izapidetzeko, sarrera berriko eskabide orriak Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan jaso ahalko dira, eta baita hezkuntzaren webgune honetan ere: <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>
- Eskabide orrian plaza lortu nahi den 5 eskola adierazi ahal izango dira, lehentasun ordenaren arabera. Bost eskola horiek Udal Haur Eskolak zein Haurreskolak Partzuergoak Vitoria-Gasteizen kudeatzen dituen Haur Eskolak izan ahalko dira. Lehenengo tokian adierazitako lekua ezingo balitz esleitu, beste lau plaza hartuko dira kontuan, adierazitako hurrenkeran.
- Eskabideak araudi honetako baremoa aplikatzearen ondorioz lortutako puntuazioaren arabera antolatu ondoren, eskatutako eskolen artean hutsik den aurrenekoan esleituko da plaza.

#### **4.2. Eskatzaileen zerrenda.**

Zerrenda hori Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Gizarte Etxeetako autotramitaziorako makinetan, 010 telefonoan (BakQ izanez gero), Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoletan eta





hezkuntzako webgunean (<https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>) kontsultatu ahal izango da 2026ko maiatzaren 22an.

Zerrenda horren bidez, eskatzaileen zerrenda eta eskaera bakoitzaren egoera jakinaraziko dira. Honako hauek izango dira:

- Osoa eta, beraz, izapidetzeko onartua.
- Osatu gabe, nahitaezko zer dokumentazio falta den zehaztuta.

### 4.3. Derrigorrezkoa den dokumentazioa zuzentzeko epea.

Osatu gabeko eskabideen kasuan, 2026ko maiatzaren 25etik ekainaren 5era, biak barne, falta den derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da, hots, eskabidea izapidetzeko beharrezkoa dena, honako modu hauetan:

- Online (derrigorrezko dokumentazioa zuzentzeko azken egunaren 23:59ra arte).
- Aurrez aurre, hemen:
  - o Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoak (aurretiko hitzorduarekin) eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoa (aurretiko hitzorduarekin edo hitzordurik gabe).
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

**Ez da onartuko derrigorrezkoa ez den eta eskabidea egiteko epean aurkeztu ez den dokumentaziorik.**

### 4.4. Behin-behineko zerrendak (haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskabideak eta baremazioaren behin-behineko zerrenda).

2026ko ekainaren 17an, behin-behineko zerrenda hauek kontsultatu ahal izango dira Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Gizarte Etxeetako autotramitaziorako makinetan, 010 telefonoan (BakQ izanez





gero), Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoletan eta hezkuntzako webgunean (<https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>):

- Onartutako haurren behin-behineko zerrenda: bertan, haurra zein eskolatan onartu den adieraziko da, bai eta itxarote zerrendan dauden haurrak ere. Plazarik lortu ez duten haurren kasuan, baremazioan lortutako puntuazioa, zein eskolatan geratu den itxaron zerrendan eta horietako bakoitzean duen posizioa zehaztuko da.
- Baremazioaren behin-behineko zerrenda, eskabidearen baremorako irizpide bakoitzean, eskabide oso bakoitzak lortutako puntuak zehaztuta.
- Izapidetzeko onartu ez diren eskabideen behin-behineko zerrenda:
  - o Eskabideak osatu gabe, nahitaezko dokumentazioa dagokion epean ez zuzentzeagatik.
  - o Baztertutako eskabideak, eskoletara sartzeko baldintzak ez betetzeagatik.

Bi kasuetan, arrazoia zehaztuko da.

#### 4.5. Erreklamazio epea.

2026ko ekainaren 17tik 19ra, biak barne, baremazio prozesuko akats edo okerrei buruzko erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Epe horretan ez da dokumentazio berririk onartuko.

Idatziz egin ahal izango dira, Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

#### 4.6. Behin betiko zerrendak (haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskabideak eta baremazioaren behin betiko zerrenda).

2026ko ekainaren 26an, behin betiko zerrenda hauek kontsultatu ahal izango dira Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Gizarte Etxeetako autotramitaziorako makinetan, 010 telefonoan (BakQ





izanez gero), Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoletan eta hezkuntzako webgunean (<https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>):

- Onartutako ikasleen behin betiko zerrenda: bertan, haurra zein eskolatan onartu den adieraziko da, bai eta itxarote zerrendan dauden haurrak ere. Plazarik lortu ez duten ikasleen kasuan, baremazioan lortutako puntuazioa, zein eskolatan geratu den itxaron zerrendan eta horietako bakoitzean duen posizioa zehaztuko da.
- Baremazioaren behin betiko zerrenda, eskabidearen baremorako irizpide bakoitzean, eskabide oso bakoitzak lortutako puntuak zehaztuta.
- Izapidetzeko onartu ez diren eskabideen behin betiko zerrenda:
  - o Eskabideak osatu gabe, nahitaezko dokumentazioa dagokion epean ez zuzentzeagatik.
  - o Baztertutako eskabideak, eskolalara sartzeko baldintzak ez betetzeagatik.

Bi kasuetan, arrazoia zehaztuko da.

Eskoletako zuzendariak plaza lortu duten familietako bakoitzarekin jarriko dira harremanetan, honako dokumentazio aurkez dezaten:

- Haurraren txertaketa kartilla eguneratuaren fotokopia.
- Haurraren bi argazki, txartelaren tamainakoak.
- Haurraren osasun txartelaren fotokopia.
- Haurrak osasun arazoak, alergia edota elikadura intolerantziak izanez gero, horren mediku egiaztagiria.
- Jantoki zerbitzuan plaza duten familiek, banketxeak emandako kontu zenbakiaren egiaztagiria.
- Banantze, dibortzio edo izatezko bikotekideen bizikidetzaren amaiera kasuan haurraren eskolatzeari eragin diezaiokeen edozein agiri.





## 5. Onarpena ikasturtean zehar.

Onartzeko ohiko prozesua amaitzen denean, hutsik dauden plazak eskatzeko epea irailetik aurrera zabalduko da, eta hilabete bakoitzaren 1etik 8ra bitartean egingo da. Plazak hilero esleituko dira, araudi honetan ezartzen diren zehaztapenei jarraituz.

2026ko maiatzaren 4tik (eta 2026ko maiatzaren 20tik, 2026ko maiatzaren 1etik 10era bitartean, biak barne, jaiotako haurrentzat) abuztuaren 31ra arte aurkez daitezkeen eskabideak 2026ko irailaren 1etik 8ra bitartean aurkeztutakoekin batera barematuko dira, eta eskolatzea 2026ko urriko lehen eskola egunean hasiko da.

**Plaza hutsak dauden eskoletan bakarrik eskatu ahal izango da plaza. Informazio hori Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri:** <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>.

### 5.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

#### Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko tokia:

- Online (izena emateko azken egunaren 23:59ra arte).
- Aurrez aurre, hemen:
  - Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoak (aurretiko hitzorduarekin) eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoa (aurretiko hitzorduarekin edo hitzordurik gabe).
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten haurren kasuan, eskabideak eta dokumentazioa Hezkuntza Zerbitzuaren bulegoetan (Frai Zacarías Martínez kalea, 3) aurkeztuko dira lehenespenez eta aurrez aurre. Aurretiko hitzordua eskatu beharko da horretarako, zeina 945 16 12 30 telefono zenbakiaren bidez edo helbide elektronikoaren bidez eskatu ahalko baita.

Hutsik dauden plazak puntuazio hurrenkeraren arabera emango dira, prozedura honi jarraituz:





- Familiek **hilabete bakoitzean** eskatu ahalko dute plaza.
- Plaza hutsak dituzten eskolak bakarrik eskatu ahal izango dira. Informazio hori Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri, hileko onarpen epe bakoitzaren aurretik: <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>.
- Nahitaezko dokumentazio osoa (“2. Derrigorrezko dokumentazioa”) aurkezten duten eta araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak bakarrik onartuko dira izapidetzeko.
- Familiek derrigorrezko dokumentazioa zuzentzeko epea izango dute.
- Izapidetzeko onartutako eskabideak barematu egingo dira, 3. “Onarpen baremoa” puntuan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, eta lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.
- Hutsik dauden plazak puntuazioaren arabera eta adinaren arabera esleituko dira.

Ezarritako epean zuzentzen diren eskabideak eta baldintzak betetzen ez dituztenak eraginik gabe geratuko dira; beraz, beste eskabide bat aurkeztu beharko da.

## 5.2. Epeak ikasturtean zehar.

- **Izena emateko hileko epe bakoitza hasi aurretik, egutegi zehatza** Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri: <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>.
- Abenduan, martxoan eta apirilean zehar egiten diren epez kanpoko egutegiak moldatuak izan daitezke, urteko jaiegunen egutegi ofizialera zein haur eskolen egutegiko jai egunetara egokitu ahal izateko.

1.Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.	Hilaren 1etik 8ra.
2.Eskatzaileen zerrenda.	Hilaren 12tik 15era.
3.Derrigorrezko dokumentazioa zuzentzeko epea.	Eskatzaileen zerrenda argitaratu eta hurrengo 3 lanegunetan.
4. Haur onartuak, itxaron zerrendan dauden haurrak, izapidetzeko onartu ez diren eskaerak eta baremazioaren zerrenda.	Hilaren 20tik 23ra.





- Familiek hilabete bakoitzaren 1etik 8ra bitartean eskatu ahalko dute plaza, haurra hurrengo hilabetearen lehen eskola egunean has dadin.
- Hileko izena emateko ohiko epetik kanpo aurkez daitezkeen eskabideak, hau da, hilaren 9tik azken egunera artekoak, hurrengo hilabeteko epean aurkeztutakoekin batera izapidetuko dira.
- Eskatzaileen zerrenda hilaren 12tik 15era argitaratuko da eta eskaera bakoitzaren egoera, hau da, osoa (eta beraz, izapidetzeko onartua) edo osatu gabea (eta nahitaezko zein dokumentazio falta den zehaztuta).
- Osatu gabeko eskaeren kasuan, nahitaezko dokumentazioa zuzendu ahal izango da eskatzaileen zerrenda argitaratu eta hurrengo 3 lanegunetan.
- Hilabete bakoitzeko 20tik 23ra, onartutako haurren, itxaron zerrendako haurren zerrenda, baremazio zerrenda eta izapidetzeko onartu ez diren eskaeren zerrenda kontsultatu ahal izango dira Gizarte Etxeetako autotramitaziorako makinetan, 010 telefonoan (BakQ izanez gero), Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoletan eta hezkuntzako webgunean: <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>.
- Behin plazak esleitura, zuzendariak harremanetan jarriko dira plaza lortu duten familiekin, hurrengo hileko lehen eskola egunean, eskolako harrera egiteko eta eskolako bizitzara ohitzeko aldia hasteko.

Eskatutako plaza bati uko egiten bazaio, eskabidea ezabatu egingo da. Berriz ere eskoletako batean plaza nahi izanez gero, beste eskabide bat aurkeztu beharko da.

Familia bati ofizioz baja eman bazaio, ezin izango du eskola plaza eskatu ikasturte osoan zehar.

Hezkuntza Zerbitzuak premia berezikotzat jo ditzakeen egoeretan izan ezik, 2027ko maiatza izango da haur berriak eskolatzeko azken hilabetea.

### 5.3. Itxaron zerrenda.

- Plazarik lortzen ez duten eskabideak itxaron zerrendan geratuko dira, bai izena emateko prozesu arruntean, bai hilez hilabeteko prozesuan.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

- Eskatutako eskolan plaza libre bat sortzen bada, Hezkuntza Zerbitzua harremanetan jarriko da dagokion eskolako itxaron zerrendan lehenengo postuan dagoen familiarekin.
- Behin plaza lortuta, eskolatzea gehienez hurrengo hilabeteko lehen eskola egunean hasiko da.





## 6. 2026-2027 ikasturterako tarifak.

### 6.1. Zerbitzuaren prezioa.

Udal Haur Eskolen 2026-2027 ikasturterako tarifak, 8.1 Ordenantza Fiskalean ezartzen dira. Ordenantza horrek "Udal Haur Eskoletan eta Hezkuntza Zerbitzuaren opor programetan parte hartzeagatik" prezio publikoa arautzen du. Ordenantza hori Udaltzako 2025eko abenduaren 19an onartu zuen, behin betiko, eta ALHAOn 2025eko abenduaren 26an argitaratu zen.

1.- Udal Haur Eskolek doan emango dute zerbitzua, matrikula barne, bai 8:00etatik 13:00etarako ordutegian, bai 8:00etatik 16:00etarako ordutegian. Doan izateko neurri horretatik kanpo geratzen da jantoki zerbitzua, 8:00etatik 16:00etarako ordutegiari dagokiona, alegia. Tarifa 36,20 euro izango da.

2.- Zaurgarritasun sozio ekonomikoan dauden familietako 2024ko, 2025eko eta 2026ko urteetan jaiotako haurrak, Udalaren Gizarte Zerbitzuetatik bideraturik direnean, salbuetsita geratu ahalko dira jantoki zerbitzua ordaintzetik, erakunde horrek proposamen arrazoitua egin eta gero. 2026-2027 ikasturtean, Udalaren Gizarte Zerbitzuek erreserbatutako 20 plaza bideratuko ahalko dituzte, gehienez jota.

3.- Hauek dira 2026-2027 ikasturtean Udal Haur Eskoletara joateagatik eta jantoki zerbitzua erabiltzeagatik diren prezio publikoak:

- **1. BERTARATZEA:** 8:00etatik 13:00etara.

2024an, 2025ean eta 2026an jaiotako haurrak.....0,00 euro hilean, haur bakoitzeko.

- **2. BERTARATZEA:** 8:00etatik 16:00etara.

2024an, 2025ean eta 2026an jaiotako haurrak (6 hilabete bete ondoren) ....36,20 euro hilean, haur bakoitzeko.





4.- 8:00etatik 16:00etarako ordutegian matrikulatuta diren 6 hilabeteko haurren jantoki zerbitzuaren kuota, hain zuzen, 6 hilabete bete ondorengo hurrengo hiletik aurrera kobratuko zaie.

5.- 2026an jaiota 6 hilabete baino gutxiago dituzten eta 8:00etatik 16:00etarako ordutegian matrikulatuta dauden hurrek jantoki zerbitzua erabili ahalko dute familiak hala eskatzen badu. Kasu horretan, 2. Bertaraterako ezarritako prezio publikoa kobratuko zaie

## 6.2. Arau aplikagarriak.

1. Ordainketa guztiak banku helbideratzearen bidez egingo dira.
2. Jantoki zerbitzuaren kuota hilabetea igarotakoan kobratuko da, eta hilabete bati dagokiona izango da, ikastetxeko egonaldia, eskola irekita dagoen egun kopurua edo haren funtzionamendu mota edozein dela ere.
3. Eskolan ematen diren hilabete bateko edo biko absentziak behar bezala justifikatu eta jakinaraziko dira, idatziz, Udal Hezkuntza Zerbitzuari, absentzia gertatzen hasten denetik hamar egun balioduneko epean. 8:00etatik 16:00etarako ordutegian gertatzen diren absentzia horiek justifikaturik daudenean, eta hori onarturik denean, jantoki zerbitzuko kuota %50 murriztuko da.

Aplikatu beharreko kuota ez da huts egiten den egunen arabera izango; hau da, hileko kuota aplikatu da. Horregatik, %50eko murrizketa aplikatuko zaio dagokion hilabeteko kuotari, hilabete batean edo bitan, kasuan kasu.

4. Jantoki zerbitzuan bi hileko ordaindu gabe uzten badira, haurrari baja emango zaio automatikoki jantoki zerbitzuan eta, beraz, 8:00etatik 16:00etarako ordutegian. Hala ere, 8:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian matrikulatuta jarraitu ahalko du.
5. Prezio publiko horiek ez badira adierazitako epeetan ordaintzen, zordunaren ondarearen gaineko premiamendu prozedura abiaraztea ekarriko du, eta %20ko errekarua sortuko da “premiamendu errekaru” gisa.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

6. 13:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegi tartea –jantoki zerbitzua barne du– noizbehinka erabiltzearen prezioa tarifa aplikagarriaren hainbanaketari dagokiona izango da, eta %10eko gehikuntza aplikatuko zaio.

